

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Filosofiaren Historia USE 2020

www.ehu.es



FILOSOFIAREN HISTORIA

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

Azterketa honek lau aukera ditu: A, B, C eta D. Horietako bat hautatu behar duzu.

Ez ahaztu azterketako orrialde guztietan kodea jartzea.

A AUKERA

AGUSTIN HIPONAKOA

“Ama, filosofiaren gazteluaz beraz jabetu zara. Hitzak besterik ez zaizkizu falta izan *Hortensius* izeneko liburuan, filosofiaren alde eta gorespenerako liburu hartan, Tullius-ek bezala aditzera emateko: *Hara nola guztiek dioten, ez filosofoek hain zuzen, baina bai eztabaidarako prest daudenek, nahi bezala bizi direnak zoriontsu direla. Oker handia! Komeni ez dena nahi izatea zoritxar ezin handiagoa baita. Nahi dena ez lortzea ez da komeni ez dena lortzea bezain txarra. Gaitz handiagoak dakartza borondatearen txarkeriak, zorteak ondasunak baino”.*

Agustin Hiponakoa: *Bizitza zoriontsuaz*

GALDERAK

1. BLOKEA. TESTUA ULERTZEA

1.1. Laburtu ezazu pasarteak, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu).

1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).

1.3. “Desioaren eta zoriontasunaren arteko lotura estua da” tesia kontuan hartuta, idatz ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanez. Ondoren, aurkez ezazu zure gogoeta pertsonala tesi horri buruz (3 puntu) (200-300 hitz).

2. BLOKEA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. Azaldu ezazu larburki Agustin Hiponakoarentzat *gaitza* zer den (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz).

2.2. Agustinen historiaren filosofia: Jainkoaren Hiria (1.5 puntu) (Gehienez, 150 hitz).

2.3. Ezagutza: arrazoimena eta fedea Agustinen eta Tomasen obran (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz).



B AUKERA

TOMAS AKINOKOA

“Maixuak ikasleari irakasten diona doktorearen zientzia da, engainatzen ez ba du, eta hori Jainkoaz esatea ez da zilegi. Jainkoak ezarri du gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea. Lehen printzipio horiek, beraz, jainkozko jakinduriaren barnean daude. Ondorioz, haien aurka dagoen guztia Jainkozko jakinduriaren aurka dago. Hori ez da Jainkoaren bidea. Hortaz, goi-agerkunde bidez ditugun egiek ezin dute ezagutza naturalaren aurkakoak izan”.

Tomas Akinokoa: *Summa contra gentiles*.

GALDERAK

1. BLOKEA. TESTUA ULERTZEA

1.1. Laburtu ezazu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu).

1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).

1.3 “Jainkoak ezarri ditu gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea” tesia kontuan hartuta, idatz ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanaz. Ondoren, aurkez ezazu zure gogoeta pertsonala tesi horri buruz (3 puntu) (200-300 hitz).

2. BLOKEA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1 Deskriba ezazu mugimenduan oinarrituriko Jainkoaren existentziaren Tomas Akinokoaren froga (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz).

2.2 Lege Naturala Tomas Akinokoaren pentsamenduan (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz).

2.3 Jainkoaren existentzia Agustinen eta Tomasen pentsamenduan (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz).



C AUKERA

DESCARTES

“Horren ostean, ni zer naizen aztertu nuen arretaz, eta ikusi nuen irudika nezakeela ez neukala inolako **gorputzik** eta ez zegoela ni nengoen inolako mundurik, ez eta lekurik, baina ez nezakeela horregatik irudikatu ni ez nintzela; eta ikusi nuen, halaber, ni ez beste gauzen **egiaz** zalantza egin behar nuela pentsatze hutsetik ondorioztatzen zela, ebidenteki eta ziurtasunez, ni zerbait banintzela”.

Descartes: *Metodoaren diskurtsoa*.

GALDERAK

1. BLOKEA. TESTUA ULERTZEA

1.1. Laburtu ezazu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu).

1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).

1.3. *Metodoaren diskurtsoan*, Descartesek Jainkoaren existentzia *nitik* abiatuz frogatzen du, niak, izaki akastuna izanik ere, izaki perfektuaren ideia baitu. Idatz ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanaz. Ondoren, aurkez ezazu zure gogoeta pertsonala tesi horri buruz (3 puntu) (200-300 hitz).

2. BLOKEA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. Intuizioa eta dedukzioa. Analisia eta sintesia (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz).

2.2. Ideia-motak: adbertizioak, faktizioak eta jatorrizkoak (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz).

2.3. Ilustrazioaren ezaugarri nagusiak (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz).



D AUKERA

KANT

“Ilustrazioa, gizakiaren irteera da bere erruzko adingabetasunetik. Adingabetasuna, berriz besteren gidaritzarik gabe nor bere adimenaz baliatzeko ezintasuna da. Norberaren erruzkoa, adingabetasunaren zergatia ez baitatza adimenik ezean, nork bere buruaz **besteren gidaritzarik** gabe erabakitze gaitasun eta kuraiarik ezean baizik. **Sapere aude!** “Ausart zaitez, zure adimenaz baliatzen! Hona hemen ilustrazioaren esana”.

Kant: “Zer da Ilustrazioa?” galderari erantzuna.

GALDERAK

1. BLOKEA. TESTUA ULERTZEA

1.1. Laburtu ezazu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu).

1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).

1.3. Kant-en iritiz, gizakiak, bere kontzientzia morala eraikitzean, bere arrazoimenaz baliatu behar du. Ikasi dituzun filosofo guztiek ez dute tesi hori onartzen. Idatz ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, aurkez ezazu zure gogoeta pertsonala tesi horri buruz (3 puntu) (200-300 hitz).

2. BLOKEA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. Kant eta Ilustrazioa: autonomia morala. *Caesar non est supra grammaticos* (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz).

2.2. Kant-en kritizismoa: Zer ezagut dezaket? Zer egin behar dut? Zer itxaron dezaket? (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz).

2.3. Ilustrazioaren ezaugarri orokorrak (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz).



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

FILOSOFIAREN HISTORIA

	1. BLOKEA. DESKRIBATZAILEAK	GEHIENEZKO NOTA
1.1	Ikasleak berari proposatutako testuaren atal batzuk kopiatu besterik ez du egiten, eta, laburpen gisa, testuan jasota dauden tesi eta ideiak adierazten ditu.	0,25
	Ikasleak testuaren ideia nagusia ondo adierazten du, hitzez hitz errepikatu gabe, baina ez ditu jasotzen testuan jasota dauden ideien multzoa ezta ideien arteko lotura ere.	0.50
	Ikasleak testuan adierazten den ideia nagusia ondo adierazten du, hitzez hitz errepikatu gabe, eta horrekin lotura duten ideiak aipatzen ditu. Laburpenaren adierazpena edo egitura, halere, ez dira egokiak.	0,75
	Ikasleak testuaren laburpena egiten du, bertan jasotako ideiak eta horien arteko lotura errespetatzen ditu, ez du hitzez hitz errepikatzen eta argi eta zehatz adierazten du dena.	1
1.2.1	Ikasleak ondo deskribatzen du azpimarratutako kontzeptua, hitzaren definizio orokorra (0,1), egileak zertarako erabiltzen duen (0,3) eta hitz horren eraginez sortzen den problematika (0,1) azalduz.	0,5
1.2.2	Ikasleak ondo deskribatzen du azpimarratutako kontzeptua, hitzaren definizio orokorra (0,1), egileak zertarako erabiltzen duen (0,3) eta hitz horren eraginez sortzen den problematika (0,1) azalduz.	0,5
1.3.	Ikasleak ez du hurrengo maila lortzen.	0
	Ikasleak mintzaldiaren gaiaz zenbait ideia garatzen ditu, baina garapena arruntegia da edo euskarririk edota argibiderik gabekoa. Ez du azaltzen iritzi pertsonal egokirik.	1
	Ikasleak testuan planteatzen den gai filosofikoa ulertzen duela frogatzen du, eta arretaz aztertzen ditu ideiak eta argudioak garatzeko bi ikuspegi filosofiko. Adibideak egokiak dira, or ohar, eta nolabait erantzunaren euskarri izateko balio dute. Badago iritzi pertsonal egokien zantzuren bat..	2
	Ikasleak testuan planteatzen den gaia eraginkortasunez ulertzen duela frogatzen du, eta arretaz aztertzen ditu gaiarekiko bi ikuspuntu filosofiko, eztabaida kritikoa eginez. Adibideak egokiak dira,. Iritzi pertsonala egokia da.	3



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

	2. BLOKEA. DESKRIBATZAILEAK	GEHIENEZKO NOTA
	Ikasleak ez du hurrengo maila lortzen.	0
2.1 eta 2.2	Ikasleak autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik, eta eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta.	0,5
	Ikaslearen erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio, azalpenak eta argudioak azaltzeko, eta eraginkorra da kontzeptu filosofikoen erabilera. Hala ere, autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik.	0,75
	Ikasleak autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuenen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik, baina eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta.	1
	Ikaslearen erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio, azalpenak eta argudioak azaltzeko, eraginkorra da kontzeptu filosofikoen erabilera eta autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuenak aipatzen ditu, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik.	1,5
2.3.	Ikasleak ez du hurrengo maila lortzen.	0
	Ikasleak autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik, eta eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta.	0,5
	Ikaslearen erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio, azalpenak eta argudioak azaltzeko, eta eraginkorra da kontzeptu filosofikoen erabilera. Hala ere, autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik.	1
	Ikasleak autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuenen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik, baina eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta..	1,5
	Ikaslearen erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio, azalpenak eta argudioak azaltzeko, eraginkorra da kontzeptu filosofikoen erabilera eta autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuenak aipatzen ditu, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik.	2